



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.10.27an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
EUGENIO OTSOA UGALDE
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ARRASATE
ESKORIATZA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2020ko urriaren 27an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenean ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko irailaren 22an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2020ko Aurrekontuaren 2020-KALD-000007-00 kreditu transferentzia espedientea onartzea

Mankomunitate honen 2020ko Aurrekontuaren kredituak aldatzeko 2020-KALD-000007-00 kreditu-transferentzia espedientearen berri eman du kontu-hartzaileak.

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2020ko Aurrekontuaren kredituak aldatzeko aipatu kreditu-transferentzia espedientea onartzea, ondorengo laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 7100.481.241.00. 01 2020	Enplegu arrisku egoeretako diru-laguntza	19.000,00	18.000,00	1.000,00
GUZTIRA		19.000,00	18.000,00	1.000,00



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1000.211.920.00.01 2020	Eraikuntzen Konponketa Eta Mantenua	25.000,00	18.000,00	43.000,00
GUZTIRA		25.000,00	18.000,00	43.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

2.2.- Foru Kontratazio Zentrala

- **Higiene-produktuz hornitzeko espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, higiene-produktuz hornitzeko kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere hornidura hau beharko duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Higiene-produktuz hornitzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

- **Material elektriko hornitzeko espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, material elektriko hornitzeko kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere hornidura hau beharko duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

1. Material elektriko hornitzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

- **Bulego materialez hornitzeko kontratuaren bigarren luzapena**

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak, 2017ko irailaren 1eko Foru Aginduaren bitartez, MONTTE, S.L. enpresarekin “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez bulego materialaren hornidura kontratatze esparru akordioa” burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu zuen. Kontratu honek bi urtebeteko indarraldia du, bi urtebeteko luzapen egiteko aukerarekin.

2020ko irailaren 11ko foru diputatuaren Agindu bitartez, Esparru Akordioaren bigarren luzapena onartu denez, eta Mankomunitateak bulego materialaren beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea bulego materialez hornitzeko MONTTE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

3.- INGURUMENA

3.1.- Etxeko hondakin bilketa zerbitzua emateko UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin sinatutako kontratuaren bosgarren aldaketa eta prezio berrikuspena

AURREKARIAK

Aurrez zegokion esleipen prozedura eginda, 2017ko irailaren 25eko datan, Mankomunitate honek administrazio kontratu bat izenpetu zuen “UTE DEBAGOIENA 2017” Aldi Baterako Enpresa Elkartearekin, Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak jaso eta garraiatzeko zerbitzua egiteko, hiru urteko epe baterako, gehienez ere 2 urte eta 6 hilabete luzatzeko aukerarekin. Kontratuaren esleipenaren urteko prezioa 2.349.771,04 €-an finkatu zen, BEZik gabe.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Aurrez zegokion espedientea tramitatu ondoren, 2017ko urriaren 1eko datarekin, kontratu horren 1. aldaketa jarri zen indarrean, ehungintzako hondakinak jasotzeko zerbitzua aldi baterako emateko (4 hilabete), guztira 39.250,24 €-ko zenbatekoarekin, BEZik gabe.

Hainbat zerbitzu berri ezartzeko eta bolumen handiko objektuak jasotzeko zerbitzua indartzeko, kontratuaren 2. aldaketa bat tramitatu zen, guztira 482.782,41 €-ko zenbatekoarekin, BEZik gabe, zeina 2017ko azaroaren 6an jarri zen indarrean.

2018ko maiatzaren 5eko datarekin, 3. aldaketa jarri zen indarrean, "Arratsaldean izandako gertakariak eta beste behar batzuk-lan osagarriak" egiteko zerbitzu berriaren probaldia luzatzearen ondorioz, 33.443 €-ko zenbatekoarekin, BEZik gabe.

2018ko irailaren 6an jarri zen indarrean 4. aldaketa, Arrasateko eta Bergarako Udalek formulatutako eskaerei erantzuteko, eta ekipamenduetan beharrezko aldaketak egiteko, bilketako ibilgailuen gehiegizko karga saihesteko. Aldaketa horren zenbatekoa guztira 326.761,14 € da, BEZik gabe.

Orain, bosgarren aldaketa bat proposatzen da, E89, E90 eta HTZ zerbitzuak egindako ibilgailu-aldaketetara egokitzeko eta alboko karga-dukiontzia aldatzeko. Aldaketa horren zenbatekoa, guztira, 4.447,69 eurokoa da, BEZik gabe.

Espediente honetan, Administrazio-Klausula Berezien Agiriko 16. klausularen 1. kasuan aurreikusitako aldaketa bat sartzen da: "Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzu berrien ezarpena, bilketa modalitatearen aldaketak edo bilketa sistema berriak sartzea edozein hondakin zatikitan", traste zaharren zerbitzuari buruzko aldaketa.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 16. klausularen 5. kasuan aurreikusitako beste aldaketa bat ere sartzen da, hau da: "Ibilbideak desbideratzea, kaleen noranzkoak aldatzen direlako edo bide sarean aldaketak egin direlako edo ibilbiderako ezarritako denbora teorikoa %10 handitzea edo gutxitzea dakarten beste aldaketa batzuentzat"; E89 eta E90 zerbitzuei buruzko aldaketa.

Azkenik, dukiontzien egokitzapenari buruzko aldaketa ez dago baldintza-agirietan aurreikusita.

Orain arte tramitatutako aldaketetan, honetan barne, metatutako zenbatekoa kontratuaren jatorrizko prezioaren %12,6 da.

Kontratua aldatzeko zegokion proposamena idatzi eta gero, entzunaldia eman zaio kontratistari, eta honek idatzi bat aurkeztu du, non adierazten duen ez dagoela ados aldaketa horren ondoriozko urteko eta hileko kontratuaren prezio berriarekin, eta alegatzen du akats bat egin dela prezio horren kalkuluan, 2019ko urrian egindako prezioen eguneratzea ez baita aplikatu.

Kontu-hartzaileak alegazio horri erantzunez bere txostena idatzi du, non akatsa onartzen duen eta alegazioa onestea proposatzen duen. Idazkariak ere bere txosten juridikoa egin du.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Azaldutako aurrekarien eta kontsiderazioen arabera, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeak bere erabaki proposamena egin du eta erabaki proposamen hau, bere dokumentu, alegazio eta informazio guztiekin, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoan aurkeztu da. Honek jasotako proposamenari buruzko bere aldeko txostena eman du, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koaren, 211.3 artikuluan xedatutakoa betez.

Orain, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren txostena jaso ondoren, kontuhartzailea, kontratuari dagokion urteko prezio berrikuspenearen kalkulazterakoan, konturatu da 2019ko prezio berrikuspenean akats bat zegoela. Medio guztiek Erkidegoko KPIa %1,2an kokatu zutela eta zifra hori aintzat hartuta, 2018ko hitzarmenak KPI + 0,2ko soldata igoera agintzen zuenez, kontratuaren 2019ko prezio berrikuspenean % 1,4ko igoera aplikatu zela soldatetan, %1,2 aplikatu beharrean, errealitatean 2019ko hitzarmenean soldatak % 1,2 igoerarekin eguneratu baitziren. Horregatik, kontuhartzaileak 2020ko prezio berrikuspen honetan aurreko urteko berrikuspenean aplikatutako gehiegizko igoera zuzendu du. Beraz, akats zuzenketa hau dela eta, bosgarren aldaketaren ondorioz aplikatu beharreko prezio berria urteko 2.704.550,11 €-koa da, BEZik gabe (eta ez bosgarren aldaketaren espedientearen jasotako 2.744.950,53 €).

Bestalde, kontuan hartuta ibilgailu berriak zerbitzuan jarri eta E89, E90 eta HTZ zerbitzuak egokitu behar izan zirenetik (2019/07/08), kontratistak baldintza berri horien gain-kostua jasan duela aldaketa-espediente hau onartu arte, 2019ko uztailaren 8tik 2020ko irailaren 30era arte, jasandako gain-kostua konpentsatzeko UTE DEBAGOIENA 2017 Aldi Baterako Enpresa Elkarteari ordaindu beharreko zenbatekoa 16.626,77 €-tan finkatzen da.

Azaldutako aurrekarien eta kontsiderazioen arabera, Gobernu Juntak aho batez honako hau:

ERABAKI DU:

1. "UTE DEBAGOIENA 2017" Aldi Baterako Enpresa Elkarteak aurkeztutako alegazioa onartzea, bertan azaldutako akatsa zuzenduz, eta Mankomunitateko udalerrietan etxeko hondakinak jaso eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratua aldatzeko bosgarren espedientearen onartzea, proposatutako baldintzetan.
2. Bosgarren aldaketaren ondorioz, kontratuaren prezio berria onartzea, urteko 2.704.550,11 €-an jarrita, BEZik gabe. (2020ko berrikuspene barne).
3. Aldaketaren ondorioz kontratuan egon den prezioaren igoerari aurre egiteko gastua onartzea.
4. Behin betiko bermea doitzea.
5. Gastua onartzea eta UTE DEBAGOIENA 2017 Aldi Baterako Enpresa Elkarteari 16.626,77 € ordaintzea ibilgailu berriak martxan jarri zirenetik jasandako gain-kostua konpentsatzeko, hau da, 2019ko uztailaren 8tik 2020ko irailaren 30era arte.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

6. Kontu-hartzaileak proposatutako ondorengo prezio berrikuspena onartzea:

Prezio berrikustea

2019ko igoera zuzena eta 2020ko igoera

Esleipena	Kopuruak	Pertsonal igoera	2018	%1,30	
Ekipoak	1.826.889,76 €		2019	%1,20	
Zeharkakoak	237.477,86 €	Batura konposat		2,5156%	
Beste gastuak	195.027,61 €				
Esleipen prezioa	2.259.395,23 €				
		Energia prezioak	oinarria	iraila 2017	95,9
Aldaketak			Azken prezioa	Abuztua 2019	104,8
2. aldaketa	142.621,29 €				
4. aldaketa	134.654,30 €	Igoera			%9,28
Aldaketak	277.275,59 €				
Guztira	2.536.670,82 €	Prezio igoera		%3,19	
Prezioa igoeraz	2.617.643,64 €				
BI %4	104.705,75 €				
Guztira	2.722.349,38 €				
5. aldaketa	17.076,34 €				
Prezioa + 5. aldaketa	2.634.719,97 €				
BI %4	105.388,80 €	Pertsonal igoera	2020	0	
Guztira	2.740.108,77 €				
		Energia prezioak	oinarria	Abuztua 2019	104,8
Prezioa 2020 urritik aurrera	2.600.528,95 €		Azken prezioa	Abuztua 2020	91,2
BI %4	104.021,16 €	Igoera			-%12,98
Guztira	2.704.550,11 €				
		Prezio igoera		-1,30%	

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berri bat

- S.R.R.; eskaera berria

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: arropa eta osagarrien diseinua eta banaketa.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- S.R.R. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (4-IM) industri modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/61.- 1.- Debagoieneko Mankomunitateko lan-kontratudunen Plantilako etxeo hondakinak biltzeko zerbitzuko txofer-zamaketari lau lanpostu, lehiaketa-oposizio irekiz, betetzeko hautapen prozesuaren deialdia egitea.

2.- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea.

3.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

20/62.- 20/22 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HOGEITA BAT MILA ETA ZAZPIEHUN EURO ETA HAMABOST ZENTIMO (421.700,15 €).

20/63.- 1.- ASIER ETXANIZ EIZAGIRRE Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumeneko informatzaile-teknikari postuan karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezien Azpieskalan sartuta.

2.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, 10 egun balioduneko epea duelarik, jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bere postuaz jabetzeko.

20/64.- 2020ko iraileko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantzaz	Elkarkidetzaz	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	54.217,46 €	15.036,91 €	1.943,82 €			
Interinoak	23.065,99 €	7.550,14 €	126,78 €			
Laboralak	43.728,01 €	18.520,42 €	1.021,74 €			
Guztira	124.071,46 €	42.264,17 €	3.092,34 €	0,00 €	33.844,26 €	90.227,20 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

20/65.- Mankomunitate honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jo denez gero, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan jasotakoaren arabera, hau ebatzi dut:

Hasiera eman dakiola aurrekontuko gastu partiden arteko kreditu transferentziaren 2020-KALD-000007-00 espedienteari, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: Kontu-hartzailearen txostena eta organo eskudunaren onarpena.

20/66.- LEHENENGO.- AXA AURORA VIDA S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bizi eta istripu aseguruak kontratatzekeo esparru akordio"-tik eratorritako kontratua 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera urteko 15.691,52 €-ko prezioan, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Kontratu honi dagokion gastuari aurre egiteko, aurrekontu arloan eskumena daukan organoak kreditu egokiak gorde beharko ditu etorkizuneko ekitaldietan ukitzen diren aurrekontuetan.

20/67.- 1.- Etxeko sukaldeko olio erabilia gaika biltzeko edukiontziz hornitzeko kontratua CERVIC, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan: 615 €/edukiontziko, gehi 129,15 €, BEZaren %21ari dagokiona. Guztira: 744,15 €.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

20/68.- 20/23 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA ETA BAT EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (470.001,39 €).

6.- GALDE-ERREGUAK

Maria Ubarretxenak galdetu du 2021eko Aurrekontuak noizko egongo diren. Lehendakariak erantzun dio zirriborroa prestatzen ari direla eta lehenbailehen aurkeztuko dutela. (akta onartzerakoan zuzendua)

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA